

GOBERNU BATZARRA

2014. 06. 20

Alkatea:

Ibai Iriarte San Vicente

Zinegotziak:

**Lore Agirre Zipitria
Hasier de los Rios Soraluze.
Rosa M. Urkola Irigoien.**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzaitzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso.

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko ekainaren hogeian, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Artxiboko xahuketak.
- 3.- Cartonajes Limousin jabari publikoa okupatzeagatik likidatutako tasaren salbuespena.
- 4.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga: I.I.F.en eskaera.
- 5.- Hondakinen bilketa tasa: A.A.A.en eskaera.
- 6.- Ibilgailuen zerga: M.A.L.G.ren eskaera.
- 8.- Nazioarteko Lankidetzak.
- 9.- Tolosako Herriaren onerako Irabazi Asmorik Gabeko Elkarteen erregistroan inskribatzeko eskaera.
- 10.- Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratuaren 7. ziuertagiria (103/14 faktura).
- 11.- TKTren bideragarritasun plangintza.
- 12.- Kontseilua: Diru laguntza.
- 13.- Kanpoko ikasleak: diru laguntza.
- 14.- Tolosako Hondakinen bilketa sistema berriarentzat edukiontzi, kubo aireztatu

eta poltsa konpostagarrien horniketarako prozesuaren hasiera.

- 15.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2014ko apirila eta urtarrila, otsaila eta martxoko erregularizazioa.
- 16.- lurramendi egoitzako konpostagailua.
- 17.- Goiener-en sartzeko eskaera.
- 18.- 18/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko ekainaren 13an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Artxiboko xahuketak.

Gaia erabaki gabe geratu da, digitalizazio proposamena Hirigintzatik eskatu zen bezala aurkeztu arte.

3.- Cartonajes Limousin jabari publikoa okupatzeagatik likidatutako tasaren salbuespena.

Bi mila hamalauko otsailaren 18an Iñaki Ormazabalek, Cartonajes Limousin, S.A.L., enpresaren izenean 2014/15 Alkatetza dekretuaren bidez pasatako jabari publikoa okupatzeagatik likidatutako tasaren (1.999,28 €) hobaria edo salbuespena eskatu du.

Aipatutako Alkatetza Dekretuaren bidez, Cartonajes Limousin enpresari pabiloian ate berri bat eta arrapala egiteko baimena eman zitzaion. Horrez gain, bi pabiloien artean dagoen pasabidea okupatzeko baimena eman zitzaion. Okupazio iraunkor horren ondorioz (172,50 m²), jabari publikoa okupatzeagatik dagokion tasa likidatu zitzaion, 1.999,28 euro, hain zuzen ere. Tasa horren hobaria edo salbuespena eskatu dute.

Tolosako Udalak, Ordenantza Fiskaletako 2.2.5 eranskinean, udaleko bide publikoetako lurzoru, lurgain eta lurrazpikoen eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziarengatik tasa kobratzea aurreikusten du. Eranskin honetako aplikazio arauetan, ez da azaltzen inongo hobari edo salbuespenik.

Aipatutako kontuan izanik eta Kontuhartzaitza departamentuak egindako proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ez salbuestea Cartonajes Limousin, S.A.L., enpresari bide publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasa.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitetzari eta Cartonajes Limousin, S.A.L., enpresari.

4.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga: I.I.F.en eskaera.

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratuta zen.

Udalbatzak, 2013ko azaroaren 8an egindako osoko bilkuran, eta 2014ko ekitaldirako ondorioe-tarako, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babes-tuta, %50eko errekarua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabileragatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Beraz, kontuan izanik, **I.I.F.**ek alokairu kontratua ekarri duela Iparragirre 1-4.C etxebizitza hori errentan dagoela ziurtatzeko,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 8 de noviembre de 2013, y a efectos del ejercicio de 2014, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Teniendo en cuenta que **I.I.F.** ha presentado el contrato de alquiler de la vivienda Iparragirre 1-4ºC para certificar que la vivienda figura en alquiler.

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

LEHENA.- I.I.F. zergadunari errekarua **EZ** aplikatzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari

ACUERDA

PRIMERO.- **NO** aplicar el recargo a I.I.F.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención

5.- Hondakinen bilketa tasa: A.A.A.en eskaera.

2014ko ekainaren 17an, **A.A.A.**ek hondakinen bilketa zerbitzuko tasaren hobaria eskatu du.

Hondakinen bilketako tasen hobariak zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasen ordenantza fiskalean arautzen dira. Hain zuzen ere, 2.1.6 eranskinaren 5. artikuluan.

Bertan, adierazten da hondakinen bilketa zerbitzuko tasaren %100aren hobaria izango dutela lanbidearteko gutxieneko soldatara iristen ez diren sarrerak dituzten subjektu pasiboek, edo gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskeintzen dituen prestakuntza ekonomiko baterako baldintzak batetzen dituenak.

Ikusiz, **A.A.A.**ren eskaeran azaldutako arrazoi bereziak,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

El 17 de junio de 2014, **A.A.A.** ha solicitado la bonificación de la tasa de recogida de residuos.

Las bonificaciones de las tasas de recogida de residuos vienen reguladas en las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades de las Ordenanzas Fiscales. Concretamente, en el artículo 5º del Anexo 2.1.6

En él se dispone que los sujetos pasivos que acrediten unos ingresos inferiores al salario mínimo interprofesional o que cumplan los requisitos para el acceso a alguna de las prestaciones económicas del sistema vasco de garantía de ingresos e inclusión social gozarán de una bonificación del 100% de la tasa por el servicio de recogida de residuos.

Teniendo en cuenta las circunstancias especiales que **A.A.A.** aduce en dicha solicitud,

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía

ERABAKI DU

LEHENA.- Ematea **A.A.A.**ri eskatutako hondakinen bilketa tasaren hobaria.

ACUERDA

PRIMERO.- Conceder la bonificación de la tasa de recogida de residuos solicitada por **A.A.A.**

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departamentuari eta interesatuari.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a la interesada.

6.- **Ibilgailuen zerga: M.A.L.G.ren eskaera.**

Bi mila eta hamalauko ekainaren 10ean **M.A.L.G.**k eskatu du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena 7280 HXM ibilgailuan, minusbaliotasunagatik.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-**M.A.L.G.**ren izenean matrikula-tutako 7280 HXM ibilgailuari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena ematea, 2014ko ekitalditik, ibilgailua lehen aldiz eskuratu delako.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuari.

El 10 de junio de 2014, **M.A.L.G.** ha solicitado la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 7280 HXM, por motivo de minusvalía.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/ 1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal reguladora de las cuotas del Impuesto,

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Conceder la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 7280 HXM, matriculado a nombre de **M.A.L.G.**, con efectos a partir del período impositivo del año 2014, por ser la primera adquisición del vehículo.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención así como al interesado.

7.- **Luzaide, S.L. establezimenduak irekitzeko baimena.**

Bi mila hamalauko maiatzaren 28an, M.A.G.k, Luzaide Estudio, S.L,ren izenean, establezimenduak irekitzeko baimenaren tasaren 440,80 € hobaria edo salbuespena eskatu du Errementari 3 behean dagoen argiztapena elementuen salmentaren jarduerarengatik.

Bi mila hamalauko maiatzaren 27an, 2014/743 zk.dun Alkatetza Dekretuaren bidez, Luzaide Estudio, S.L.ri aurretiazko komunikazioa behar duten jarduera sailkatua izanik (argiztapen elementuen salmenta), dagokion tasa likidatu zitzaion, 440,80 €, hain zuzen ere. Titularitate aldaketa bat izan da, jarduera ez baita aldatu.

Tolosako Ordenantza fiskaletako 2.1.3 eranskinak dio tasa honen oinarri zergagarria establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea dela, bai eta sektoreko legerian jasotako baldintzak bete izana egiaztatzeko jarduera egitea ere. 2. puntuak, gainera, negozio- eskualdatze edo zesioak eta establezimenduaren jabe aldaketak, nahiz eta bertan garatzen den jarduera ez aldatu, kasu horietan ere, tasa ordaindu behar dela azaltzen du.

4. puntuak, honakoa dio: ***“Guraso eta seme-alaben arteko eta ezkontideen eta izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak xedatutakoaren arabera osatutako izatezko bikoteko kideen arteko titulartasun aldaketak (jarduera aldaketa edo zabalkuntzarik ez dagoenean) tarifaren 100eko 50eko hobariarekin likidatuko da”***.

Kasu honetan, titulartasun aldaketa da, baina ez da guraso eta seme-alaben arteko eta ezkontideen eta izatezko bikoteen arteko aldaketa izan.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Luzaide Estudio, S.L., enpresari establezimenduak irekitzeko baimenaren tasan hobaririk edo salbuespenik ez ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Luzaide Estudio S.L,ri.

8.- **Nazioarteko Lankidetz**.

Tolosako familia batek eskaera egin du, 2013. urtean bere etxean Chernobileko haur bat hartzeagatik izandako bidaiaren gastuak ordaintzeko.

Ikusita Gizarte Politikak eta Osasuna batzordeak egin duen diktamena eta berarekin ados, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- 625 € ematea 2013. urtean Chernobileko ume hartu zuen familiari.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Gizarte Politikak eta Osasuna departamentuari eta interesatuari.

9.- Tolosako Herriaren onerako Irabazi Asmorik Gabeko Elkarten erregistroan inskribatzeko eskaera.

“Colectivo Saharaui en Gipuzkoa” elkarteak, Tolosako herriaren onerako irabazi asmorik gabeko elkarten erregistroan izena emateko egin duen eskaera ikusita eta ezarrita dauden baldintzak betetzen dituztelakoan,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea “Colectivo Saharaui en Gipuzkoa” elkarteak Tolosako herriaren onerako Irabazi Asmorik Gabeko elkarten erregistroan sartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Gizarte Zerbitzuetako departamentuari, Kontuhartzaitzari eta “Colectivo Saharaui en Gipuzkoa” elkarteari.

10.- Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratuaren 7. ziurtagiria (103/14 faktura).

Bi mila hamahiruko urriaren 4an egindako bilkuran Udal Gobernu Batzarrak Lurgoien, S.A., enpresari adjudikatu zion Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko obra kontratua, 1.565.052,72 (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa. Bi mila hamalauko ekainaren 16an, Obren Zuzendaritzak 7. ziurtagiria aurkeztu du, 250.486,08 €-koa.

Ziurtagiri hau aztertuta, eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola aipatutako ziurtagiriari, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko obren 7. ziurtagiria (fak zkia: 103/14, Lurgoien, S.A., enpresarena), 250.486.08 €-koa (BEZ barne).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Lurgoien, S.A., enpresari eta Kontuhartzaitzari.

11.- TKTren bideragarritasun plangintza.

Gaia erabaki gabe geratzen da falta diren agiriak aurkeztu arte.

12.- Kontseilua: Diru laguntza.

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak honi buruz jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Kontseiluari urtero bezala 5.000€ko diru laguntza ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta Kontseiluari.

13.- Kanpoko ikasleak: diru laguntza.

Aitzol Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten ari diren ikasleek egindako eskaera ikusita, eta kontuan izanik bete beharreko baldintzak betetzen dituztela, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak honi buruz jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondoren zehazten diren ikasleei diru laguntza kopuru hauek ematea:

. J. K..... 472,50€

. B. M. A..... 427,50€

. M. J. L. S. 391,50€

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeari eta interesatuei.

14.- Tolosako Hondakinen bilketa sistema berriarentzat edukiontzi. kubo aireztatu eta poltsa konpostagarrien horniketarako prozesuaren hasiera.

Maiatzaren 27an ospatutako udalbatzan Tolosako hondakinen bilketa sistema berria onartu zuen Udalak.

Beraz, sistema berriari ekiteko behar diren edukiontzi eta jarraipenerako sistemak erosteko espedientea onartu zen.

Ingurumen teknikariak, txostena egin du espedientea osatzearren.

Txosten honekin, Tolosako hondakinen bilketa sistema berriarentzat edukiontzi, kubo aireztatu eta poltsa konpostagarrien horniketarako espedienteari hasiera eman nahi zaio, plegu tekniko eta administratiboak aurkeztuz.. Kontratazioa, publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez izango da. Kopurua 56.657,5€ gehi BEZa.

Hau dena kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKIDU

LEHENA.- Onartzea plegu tekniko eta administratibo partikularren agiria, publiziterik gabeko prozedura negoziatu bidez hornidura kontratatzeko.

BIGARRENA.- Kontuhartzaitzari eskatzea beharrezko diru erreserba egin dezala inbertsio hauentzat.

HIRUGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea, dagokion gonbidapenak eginez.

15.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2014ko apirila eta urtarrila. otsaila eta martxoko erregularizazioa.

Tolosaldeko Mankomunitatean 3 sistema desberdinen bidez egiten da hondakinen bilketa. Atez-atekoa, landa eremukoa eta edukiontzien bitartez egiten dena. Sistema bakoitzak ingurumenarekiko eragin desberdinak ditu eta sistema bakoitzaren kostuak eta diru sarrerak (bilketa, garraioa eta tratamendua) desberdinak dira. Hori dela-eta, formula bat garatu da Mankomunitatearen baitan herri bakoitzak egin beharreko ekarpenak modu orekatu eta justuan banatzeko.

Horrela, bi zatitan banatzen da udal bakoitzak egin beharreko ekarpena:

* **Gastu finkoa:** Hondakinen bilketa sistema bakoitzari dagokiona eta mankomunitatearen gastu estrukturaleri dagokiona.

***Gastu aldakorra:** Hondakinen tratamenduari dagokiona, material birziklagarrien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Tolosaldeko Mankomunitateak 2014ko apirilari dagokion faktura 21014/129 (104.161,28 €-koa) aurkeztu du.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako faktura (apirilari dagokiona). Kopurua: 104.161,28 €-koa.

BIGARRENA- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ingurumena departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.

16.- Iurramendi egoitzako konpostagailua.

Alkatetza-Dekretuaren bidez egitea erabaki dute.

17.- Goienar-en sartzeko eskaera.

Batzordekideek jakinaren gainean geratzen dira eta gaia hurrengo Udalbatzarrean tratatuko dela adierazi dute.

18.- 18/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **18/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **116,809,51** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 18/2014 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:30etan.

ALKATEA

IDAZKARIA